

2014ko apirilaren 26a, larunbata ::: 8 zk. ::: www.kronika.net :::

■ ASTIGARRAGA OLATZ ARRIETA BARANDIARAN KAZETARIA

«40 segundotan oso zaila da dena azaltzen»

Olatz Arrieta EITBko korrespontsala da. Bruselan dabil gaur egun eta aurretik, 15 urte egin ditu New Yorken. Aste Santuan Astigarragara itzuli da, bisitan.

EUSKAL Telebista ikusi ohi dutenentzat ezaguna izango da oso, Olatz Arrieta. New Yorken hasi zen ETBrako korrespontsal lanetan eta 15 urteren ondoren, Bruselan dabil iaztik. Aste Santuan Astigarragara bueltatu da bisitan eta Kronikak bere esperientziaren berri izateko aprobetxatu du. Bere lanean, denbora oztopo haundia dela azaldu du: «40 segundo besterik ez ditut azaldu nahi dudana azaltzeko. Oso zaila da dena azaltzea». /12-13



Etxean egina, Hernaniko plazara

ARTISAU Azoka izango da hiru egunez Hernanin, Gudarien plazan. Atzo hasi zen eta bihar arte egongo da, Euskal Herriko eta beste hainbat tokitako artisauek jarri-

tako azoka. Produktu gastronomikoak asko dira, baina baita eskuz egindako artisauek ere, egurrezko kutxara, tenedore eta erramintak, arropak, poltsak

eta pitxiak, esaterako. Etxean egina, Hernaniko plazara ekarriko dute artisauek, eta hernaniarrek gozatu, bertatik pasatzeko zortetik izanez gero. /2

■ HERNANI

Sagardoaren Txapelketako finala jokatuko da gaur

Erremontean, Sagardoaren Txapelketako finala jokatuko dute gaur Etxeberria IV-lonek eta Matxin III-Etxeberria IIIak. /6

■ GOIZUETA

Mendi lasterketa, paisaia ederraz gozatuz

Goizutrail mendi lasterketa maiatzaren 17an izanen da. Dani Narbarte da antolatzaileetako bat eta Kronika berarekin bildu da lasterketaren berri izateko. Izen ematea zabalik dago. /14

■ EREÑOTZU

Jon Ander Elortza, etorkizuneko erremontista

Jon Ander Elortza 20 urteko gazte ereñotzuarra erremontean dabil azken bi urte eta erdian. Orain gutxi, Euskal Herriko txapela jantzia da. /8

■ ARANO

Miaxiria prestatzen

Abenduan argitaratuko dute Miaxiria aldizkaria eta arduradunek jakinarazi dute hasi direla lanak jasotzen. /15

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-7

Kontzertua, ikastaroa, esku pelota, eskalak...

Ereñotzu /8**Astigarraga /9-13**

Gure Esku Dago, Galtzaur, Kako jatetxea, giza-proba...

Goizueta /14-15

Txino auzoko festak...

Arano /15

Hontza, terraza irekia...

ILEAFAINDEGIA
Jone eta Ana
BIOK

Elkano kalea 18 behea
20120 HERNANI 943 33 30 32

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA hitzordua hartzen hasiko gara.

OSTIRALETAN ETA LARUNBATETAN lehen bezala jarraituko dugu.

ASTELEHENA 09:00 - 12:30
ASTEARTEA-ASTEAZKENA 09:00 - 12:30 / 15:30 - 19:00
OSTEGUNA-OSTIRALA 09:00 - 18:00 **LARUNBATA** 08:00 - 13:30

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

Maiatzaren 1ean

I R E K I T A

Hurriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

YG **yongarin.com**
argazkilaria · fotografo

- Ezkontza erreportajeak
- Haurdunaldi argazkiak
- Jaunartze erreportajeak
- Umeen argazkiak
- Enpresatarako argazkiak

www.yongarin.com | info@yongarin.com

679 599 383



■ ARTISAU AZOKA

Artisauen janak eta eskulanak, magia postua eta guzti

Euskal Herritik eta beste lurraldeetatik etorritako hainbat artisauek jarri dituzte postuak Gudarien plazan. Gaur eta bihar, 11:00-15:00 eta 17:00-22:00.

DENBORA pasa polita dauka asteburu honetan Gudarien plazara inguratzen denak. Artisauen postuak daude bertan, jana eta edana, eskulanak, eta beste hainbat produktu. Magia postua ere bertan da, eta Nacho magoak segituan erakarriko du begia luzatzen dion lehendabizikoa.

Euskal Herriko eta beste lurraldeetako postuak daude, Castilla Leon, Castilla la Mancha, Andaluzia, Cantabria eta Extremadurakoak, hain zuzen.

Tea eta gozoak, txerriak eta abar... ez da jatenik falta
Norbere herrietako produktuak ekarri ditu azoka honetara, eta denen artean eskaintza ederra osatzen dute. Tea eta infusioak batean, gozoarekin lagunduta, otordu bantentzat hasiera polita izan liteke. Galiziatik ekarri dituzte beroan jan beharrekoak, bertan prestatuta emango dituztenak: enpanada gaziak, txorixo eta oilaskoarekin beteak, edo bolleria, palmera eta rosco erraldoiak, eta bizkotxo natazkoak eta txokolatetzkoak.

Gazia nahiago dutenek, ez dituzte falta txerriak: txorizo, saltxitxoi, urdaiazpiko, eta hainbat produktu gehiago,



Atzotik dago azoka, eta dagoeneko lehendabiziko hernaniarrak inguratu ziren.

goseak dijoanarentzat tentagarri. Gazta haundi eta txikiak, freskoak eta zaharragoak... ogirik ere ez da falta.

Arinxego gustatzen zaionari jarri dizkiote antxoa latak eta esparragoak, atuna eta beste hainbat produktu, hamaiketakorako gaizki etorriko ez direnak.

Arropak, poltsak eta abar
Jatenaz gain, ordea, artisauek

Era guztietako postuak eta produktuak daude artisau azokan.

beraiek egindako eskulanak ere badira bertan. Arropak eta poltsak, egurrezko kutxara, tenedore, ontzi eta abar... Pitxiak ere badira, detaileren

batekin etxera joan nahi duenarentzat.

Nacho, mago berezia
Jende faltarik izaten ez duena, azoka honetan, Nacho magoa. Karta jokuekin txundituko du tranpa harrapatu nahian joaten zaiona, dudarik gabe. Eta nahi duenarentzat, karta sorta bat ere badu salgai.
Azoka, goiz eta arratsalde: 11:00-15:00 eta 17:00-22:00. ■

■ ZIGARRO ELEKTRONIKOAK 'BAPEOA'

Firma biltzen gaur, zigarro elektronikoak araurik gabe erabiltzearen alde

Europar Batasunak araudi bat atera nahi du zigarro elektronikoak erabiltzeko, eta zigarro horiek erabiltzen dituztenak beldur dira, zigarro hori azkenetan ote den.

FIRMA biltzen ariko dira gaur, goizean, Gudarien plazan, zigarro elektronikoak araurik gabe erabiltzearen alde. Europar Batasunak atera nahi duen legediak zigarro honekin erabat bukatuko duela diote, eta hori galerazi nahian, Europa guztiko erabiltzaileak firma biltzen ari dira. Helburua,

1.000.000 firma lortzea, azaroaren 25a baino lehen.

«Bapeoa» ezin da sartu Tabakoaren Legean»
Zigarro elektronikoa erretzeari bapeoa deitzen zaio, baporea botatzen delako ahotik. Horren aldeko kideek diote, Europar Batasunak Tabakoaren

Gudarien plazan egongo dira gaur 10:00etatik 14:00etara.

Legearen barruan sartu nahi duela bapeoa, alegia, bi ziga-

roak parekatu egin nahi dituela hainbat zentzutan: zigarro elektronikoa, eta betikoa. «Bapeoa ezin da kontenplatu Tabakoaren Legean. Hainbat debeku badaude hor, denda txikiak itxiarazteko eginak. Lobbie haundiek bakarrik aurre egin ahal izango diete baldintza horiei». ■

■ PORTU

Lokala garbitzeko deia, gaur, udaberriko kultur ekintzen atarian

Udaberriko kultur ekintzak maiatzaren 9an hasiko dira, eta horren atarian, gaur, auzo elkarteko lokala garbitzeko deia egin dute, 10:00etatik aurrera. Ondoren hamaiketako izango da.

Lau ekitaldi prestatu dituzte maiatzaren 9tik 24ra. Maiatzaren 9an Iñaki Sanz-Azkue ariko da: *Portuko umeak eta natura. Nolako auzoa nahi duzu zure seme-alabentzat?* Maiatzaren 10ean, Lantziegora joango dira, ardo bodega batera: *De Luis R. de Lantziego*. Maiatzaren 16an, sagardo kata komentatua dute. Maiatzaren 24an, Añarbeko urtegira irteera, eta bazkaria Goizuetan. ■

■ SASOIKO

Sendabelarrak ezagutzeko aukera, bihar goizean

Mikel Benito naturopatak gidatuta, Listorretan ibiliko dira bihar goizean, sendabelarrak bildu, identifikatu eta ezagutzen. Joan nahi duenak, deitu gaur: 943 33 11 83 edo 656 721 492. ■

■ GURE ESKU DAGO

Postua gaur goizean, Plaza Berrin

Gure Esku Dago ekimenak postua jarriko du gaur, 11:00etatik aurrera Plaza Berrin. Ekainaren 8ko giza katerako txartelak salduko dituzte, eta kamixetak eta materiala ere bai. ■

■ GOIZ EGUZKI

Paseoa gaur goizean Hernani inguruan

Goiz Eguzki jubilatuta etxeak antolatuta, oinezko paseoa egingo dute gaur, Hernaniko bazterrak ikusiz. Goizeko 10:00etan atera, Otsuaenean bazkaldu, eta buelta. ■

■ ERNAI

‘Manifestakzioa’ maiatzean Bilbon, eta autobusak Hernanitik

Datorren maiatzaren 3an Manifestakzio Nazionala dietu dute Bilbon, 17:30etan Deustuko zubitik aterata. Hernanitik autobusak jarriko dituzte, eta txartelak salgai daude Garinen, 5 euroan. ■

KONTZERTUA AKORDEOIA ETA BIOLONTXELOA

Goi-mailako kontzertua entzuteko aukera gaur Milagrosan, akordeoi eta txeloan

Sei konpositoreren obrak interpretatuko dituzte gaur, iluntzeko 20:00etan Milagrosan, Philippe de Ezcurra akordeoi-joleak eta Maitane Sebastian txelo-joleak: Bach, Ravel, Grieg, Sarasate, Brubeck eta Piazzolarenak.

A TEMPO bikotea osatzen dute Philippe de Ezcurra akordeoi-joleak eta Maitane Sebastian biolontxelo-joleak. 10 urte daramazkete elkarrekin, eta hainbat jaialditan izan ondoren, Hernanin emango dute kontzertua gaur, iluntzeko 20:00etan hasita, Milagrosan, Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak antolatuta.

Estilo guztiak: klasikoa, erromantikoa, tradizionala eta garaikidea

Errepertorio zabala dute bi musikari hauek. Obra klasiakoak nahiz estreinaldiak eskainiko dituzte gaur iluntzean. Estilo klasikoko musika izango da batzuetan, eta erromantikoa, tradizionala edota garaikidea, beste batzuetan.

A Tempo bikotea osatzen dute bi musikariek.

Guztira, 6 konpositore haundiren 7 obra joko dituzte. J.S. Bachen Sol Majorreko Sonata, batetik: *Adagio*, *Allegro ma non tanto*, *Andante* eta *Allegro Moderato*.

Bestetik, Maurice Ravelen *Ma Mère L'Oie: Pavane de la belle au bois dormant*; *Petit Poucet*; *Laideronnete*, *impératrice des pagodes*; *Les entretiens de la belle et la bête* eta *Le jardin féérique*.

Hirugarren obra Edward Grieg-ena izango da, *Peer Gynt - Suite Nº1: Le Matin*, *La mort d'Ase*, *La danse d'Antira* eta

Dans la halle du roi de montagne.

Segidan joko dute Pablo Sarasate biolin-jole iruñar ospetsuaren *Jota de San Fermín*.

Azken bi konpositoreak, berriz, amerikarrak aukeratu dituzte. Dave Brubeck kaliforniarraren jazz musika joko dute lehenengo: *Blue Rondo a la Turc*. Eta bukatzeko, tangoan aditua izandako Astor Piazzola argentinarraren *Milonga del Angel* eta *Muerte del Angel*.

Diskoa atera berri

Hainbat jaialdi ezagunetan ibilitako bi musikari hauek orain gutxi grabatu dute lehenengo diskoa, *Euphonia* (Label Ameson), eta bertako pieza batzuk entzun ahal izango dira gaur. II



Gaurko kontzertistak: Philippe de Ezcurra akordeoi-jolea eta Maitane Sebastian txelo jolea.

OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZA PATRONATUA

Haur eta nerabeen gurasoentzako bi ikastaro, maiatzetik ekainera

Bi ikastaro antolatu ditu Ongintzak 0-9 urte bitarteko haurren gurasoentzat eta 10-18 urte arteko nerabeen gurasoentzat. Helburua da baliabideak ematea gurasoek beren seme-alaben heziketan parte hartzeko.

BI ikastaroak maiatzetik ekainera bitartean emango dira, Biteri kultur etxean. Maiatzaren 6, 20 eta 27an, eta ekainaren 3 eta 10ean egingo dira saioak; 0 eta 9 urte arteko haurrak dituzten gurasoentzako saioak 15:00etatik 16:30etara emango dira, eta 10 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoentzako saioak, berriz, 11:00etatik 12:30etara.

Izen ematea irekita dago hila bukatu arte. 943 55 78 54 telefonora deitu behar da, eta Ana Gofiren galdera egin.

Gurasoek haurren heziketan parte hartzea helburu

Seme-alaben adinaren arabera, bi ikastaro antolatu dira,

Saioak emango dira maiatzaren 6, 20 eta 27an, eta ekainaren 3 eta 10ean; 0-9 urte bitarteko haurren gurasoentzat 15:00etatik 16:30etara, eta 10-18 urte bitarteko gazteen gurasoentzat 11:00etatik 12:30etara. Izen ematea apirilean egin behar da.

baina bietan helburu nagusia bera da: gurasoei baliabideak ematea beren seme-alaben heziketan parte hartzeko, eta haur eta nerabeen garapena sustatzea.

Ikastaro bakoitzeko edukiak, aldiz, gehixeago bereiztu dira, haurren adinaren arabera

sortzen diren beharretara egokitzeko.

Komunikazioa eta emozioak, eta Internetera adikzioa

0-9 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako ikastaroan landuko diren edukiak ondorengoak izango dira: gizarte

aldaketak eta egungo gurasoak nolakoak diren; haurraren garapena; komunikazioa eta emozioak lantzea; arrisku-tsuak, familia eta heziketa lotzea; eta gaur egungo dependentzia eta arrisku berriak zein diren, adibidez, Internet.

Dependentziak eta adikzioak, nerabezaroran

10-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako ikastaroan beste eduki batzuk landuko dira.

Horien artean, gurasoek hartzen duten jarrera seme-alabak nerabezarora iristen direnean; dependentzia eta adikzioak eta egungo adikzio berriak (Internet, mugiko-

rrak...); eta drogak, familia eta heziketaren arteko zikloa.

Droga-mendekotasun Planaren barruko ikastaroak

Bi ikastaro hauek Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak antolatu ditu, baina Lahar elkarteak emango ditu.

Era berean, ikastaroak Droga-mendekotasun Prebentziorako 2009-2014 Tokiko Planaren barruan daude kokatuta, eta Hernaniko familiei laguntzeko zerbitzuaren jardueretako bat izango dira.

Informazio gehiago eta izen-emate orriak Udaleko webgunean aurki daitezke: www.hernani.net. II

■ HERNANIKO GAZTE OLINPIADAK

Suziri olinpikoaren txinpartak herri osoa piztuko du gaurtik ekainera

Goizeko 10:00etan jarri dute zita Tilosetan, eta pintxoak eta estandarte egiteko tarte izango dute 12:30ak arte. Gero, bazkaldu, eta 16:00etan O Faktorean hartuko du parte talde bakoitzak, bere abileziak erakusteko. Hortik aurrera, festa!

HERNANIKO Olinpiadak gaur hasiko dira. Goizeko 10:00etan jarri dute zita Tilosetan (euriarekin, Atsegindegina), taldeak elkar-tu eta egunari hasiera emateko. Egun osoko festarekin piztuko da aurtengo Olinpiadetako suziria.

2010ean berreskuratu zirenetik, hirugarren edizioa da aurtengoa, bi urtean behin egiten baita. 22 taldek hartuko dute parte edizio honetan; aurrekoan baino gutxiagok, baina ez dira horregatik parte hartzailez exkax ibiliko! Izan ere, talde bat baino gehiago elkartu egin dira; herriko eta inguruetako gazteek elkar ezagutu dute, eta harremanak sendotzen ari dira.

Pintxandarte, psikokiller, bazkaria, O Faktorea eta musika

Ekintzarik ez da faltako gaurkoan, Olinpiadei merezi duten hasiera emateko.

Goizeko 10:00etan elkartuko dira parte hartzaile guztiak Tilosetan. 12:30ak bitartean Pintxandarte egiteko tarte izango dute. Hau da, bakoitzak taldearekin zerikusia duten estandarte eta pintxoak egin beharko dituzte. Gero, noski, urtero bezala juezak ibiliko dira prestatutako jaki guztiak dastatu eta puntuazioak jartzen. Tartean, 12:00etan, psikokillerra izango da. Behin lehenengo proba pasata, bazkaltzeko eta indarrak biltzeko tarte izango da arratsaldeko 16:00ak arte. Orduan hasiko da O Faktorea.

Talde bakoitzak bere burua aurkezteko baliatuko du O Faktorea ikuskizuna, (telebistako programa batean oinarritutakoa). Baina, horrez gain, beren abileziak ere erakutsi beharko dituzte: dantzan, kantuan, antzerkian, barre eragiten... Bakoitzak, ahal duena, baina bi minututan, gehienez ere! Eta gero eta taldekide gehiagok parte hartu, orduan eta hobeto!

Hortik aurrera, festarako tarte irekiko da. Arratsaldeko 18:00etan Olinpiaden irekiera ekitaldi ofiziala egingo da. Gero, 18:30etan txaranga ate-



Aurten ere, Olinpiadak hasteko, sukaldean gai ote diren erakutsi beharko dute Hernaniko eta inguruko herrietako parte hartzaileek.

Arratsaldean musikak tarte berezia izango du; 18:30etan txarangak, eta 21:30etatik aurrera 3 taldek: Tajon Prieto, Meltdown eta Oi Dek Oi!

rako da herrian zehar, giroa jartzera. 21:30etan, berriz, hiru talderen kontzertuak izango dira: Tajon Prieto, Meltdown eta Oi Dek Oi! Gironik ez da faltako beraz, Hernaniko Gazte Olinpiaden lehenengo egunean. Ezta aurrerantzean ere!

Hurrengoa, proba klasikoa: patin lasterketa

Gaurko egunak utziko dituen agujeta eta ajeari buelta emateko tarte haundirik ez da izango, hurrengo proba asteazkenean egingo baita.

Proba klasikoa, baina baita berria ere, sorpresaren bat izango baita aurten, patin lasterketan.

Olinpiadetako proben erdiak datorren hilean

Patin lasterketa pasata, seguru sailkapenean gora-beherak izango direla, eta puntu gehiago biltzeko aukera paregabea izango da maiatzetan. Izan ere, Olinpiadetan egingo diren 10 probetatik erdiak, 5, hil horretan egingo dira.

Hasteko, maiatzaren 8a kuadrigen eguna izango da. Talde guztietako partaideek erromatarren tankeran ibili beharko dute herrian barrena, halamoduzko zaldiek tiratutako kuadrigetara igo eta lantza eta geziak botatzen.

Hurrengo asteburuan, berriz, hilaren 17 eta 18an

proba bikoitza egingo da. Batetik, larunbatean egun osoko egitaraua antolatu da: munduan inoiz izan den ginkana ikusgarriena egingo da Landaren; gero, bazkaria izango da, eta arratsaldean, joku erraldoiak. Igandean, bestalde, *Humor amarillo* telebista programa ezaguna gogorarazteko moduko saioa antolatu da.

Hileko azken proba ez da berria izango, baina aldaketa batzuk egingo dira, azken ediziotik hona. Boxleya egingo da maiatzaren 31n. «Inoiz ikusi den boxley haundiena» izango dela diote antolatzaileek. Aurreko edizioetan Kale Nagusian behera eta Kontrakantxa Gaztetxetik kiroldegirako bidean egin izan da proba hau, baina aurten, Ave Maria parke osoa hartuko du.

Ekainean azken 3 proba, San Joanen aurretik

Saltsa ederra egongo da ekainerako herrian. Olinpiadetan parte hartzen ari diren 22 tal-

deen puntuen arteko aldea nabarmena izango da kasu batzuetan, eta oso estua beste batzuetan. Ekaineko azken 3 probetan erabakiko da guztia.

Hileko lehenengo ostegunean, ekainaren 5ean, pin pon ruleta proba eta *a capar* saskibaloia jokua egingo dira. Ekainaren 14an, berriz, azken urteetan egonkurtu den Ereñotzuko eguna ospatuko da. Bertan jokuak egingo dira, baina zein joku, orduan jakingo da, sorpresa eman nahi baitute antolatzaileek.

Azken eguna ekainaren 21a izango da. San Joanak baino lehen deskantsatu eta indarrak berreskuratzeko tarte gutxi egongo da, hortaz! Egun hau ospakizunetarako izango da. Olinpiaden itxiera festa ofiziala egingo da, eta horrekin batera, bazkari herrikoia eta sari banaketa.

Bilerak asteazkenetan

Hau guztia antolatzeko lanean aritzen da KOIa, baina



Patinen proba klasikoak ere izango du tokia aurtan, datorren asteazkenean.



Boxleya azken edizio guztietan egin da; Kale Nagusian eta Gaztetxean. Aurtan, Ave Marian.

horrez gain, Olinpiadetan parte hartzen duten taldeek ere egun bat baino gehiago antolatzen dute.

Hori horrela, hainbat bilera egingo dira jokuek iraun bitartean; guztiak, asteazkenetan. Lau bilera egingo dira hemen-dik ekainera bitartean: maiatzaren 14an eta 28an, eta ekainaren 11 eta 18an.

Harremanak sendotu, herria girotu, kirola egin...

Olinpiadetan egiten diren joku eta proba gehienek puntuak irabazteko balio dute, baina ez da hori Olinpiadetako helburu nagusia.

Herri osoan zehar egiten diren proba hauen bitartez, asmoa da, besteak beste, herriko koadrilek elkar ezagutzea eta harremanak sendotzea, herria bera girotzea eta herri-tar guztiek parte hartzeko moduko ekintzak antolatzea, talde lanean aritzea, parekide-tasuna bermatzea, kirola egi-tera bultzatzea eta aisialdia euskeraz antolatu eta goza-tzea.

Hori horrela, irizpide garbi batzuk jartzea erabaki du aurtan KOiek. Izan ere, giro ona nagusi izan da aurreko urtee-tan, baina tarteka, jendea kon-petizioan buru-belarri sartzen da, eta lesionatu bat baino gehiago izan da. Honekin lotu-ta, hain zuzen, garbi azaldu dute Olinpiaden asmoa dela konpetibitate sano bat bultzat-zea. Hau da, jokuetan ahalik

Klasiko bihurtu diren probak ez dira faltako; ezta proba berriak ere: ginkana erraldoia, *Humor amarillo*, kuadriga karrera...

Irizpide garbiak jarri ditu KOiek aurtan, Olinpiaden oinariak zein diren zehazteko.

San Joanen atarian bukatuko dira Olinpiadak; ekainaren 21ean.

eta jende gehienak parte hartzea eta paperean sartzea, baina beti ere, laguntasuna eta umorea galdu gabe. Garran-tzitsuena da ondo pasatzea.

Gainera, indarrak neurtu beharko dituzte parte hartzaileek. Izan ere, San Joan jaien atarian bukatuko dira Olinpiadak, eta zaila izango da martxarekin jarraitzea San Joanetan ere! ||

EGUTEGIA

GAUR, LARUNBATA

- 10:00ETAN TILOSETAN ELKARTU.
- 10:30ETAN PINTXANDARTEA: Taldearekin zerikusia duen estandarte eta pintxoak egin.
- 12:00ETAN PSIKOKILLER.
- 12:30ETAN: PINTXO ETA ESTANDARTEEN BALORAZIOA.
- 14:00ETAN BAZKARIA.
- 15:00ETAN KAFEA ETA KOPAK.
- 16:00ETAN O FAKTOREA: 2 minutu, abileziak erakusteko.
- 18:00ETAN OLINPIADEN IRE-KIERA EKITALDIA.
- 18:30ETAN TXARANGA HERRIAN ZEHA.
- 21:30ETAN KONTZERTUAK: Tajon Prieto, Meltdown eta Oi dek Oi!

APIRILAK 30, ASTEAZKENA

- PATIN LASTERKETA: Lasterketa mitiko, klasiko eta berria.

MAIATZAK 8, OSTEGUNA

- KUADRIGAK: Erromatarren antzera, koadrilak herrian lantza, gezi eta abarrekin.

MAIATZAK 17, LARUNBATA

- LANDAREN EGUNPASA: Goizean munduko ginkana ikusgarriena eta bazkaria. Arratsaldean, joku erraldoiak.

MAIATZAK 18, IGANDEA

- HUMOR AMARILLO

MAIATZAK 22, OSTEGUNA

- BOLEIBOL PARTIDUAK.

MAIATZAK 31, LARUNBATA

- BOXLEY: Hernanin inoiz ikusitako haundiena, Ave Marian.

EKAINAK 5, OSTEGUNA

- PIN PON RULETA ETA 'A CAPAR' SASKIBALDIA.

EKAINAK 14, LARUNBATA

- JOKU SORPRESAK EREÑOTZUN.

EKAINAK 21, LARUNBATA

- OLINPIADEN ITXIERA, BAZKARIA ETA SARI BANAKETA.

BILERA EGUNAK

- MAIATZAK 14, ASTEAZKENA
- MAIATZAK 28, ASTEAZKENA
- EKAINAK 11, ASTEAZKENA
- EKAINAK 18, ASTEAZKENA

OLINPIADEN BERRI. BLOGEAN ETA FACEBOOKEN

■ Olinpiaden berri jakiteko aukera izango da, aurtan ere, Interneten. Egutegi osoa, albisteak, argazkiak, ohar eta abisuak eta Olinpik News saioa blogean argitaratuko dituzte: hernanikogazteasanblada.com.

■ Facebooken ere bere tar-tea izango dute Olinpiadek: Hernaniko Gazte Olinpiadak.

■ Bileretara joatea ere ezinbestekoa izango da, sor daitezkeen aldaketen berri jakiteko eta antola-kuntza lanak banatzeko.

IRIZPIDEAK

- TALDEEN ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEA (herriko taldeak nahiz inguruko herrietakoak).
- KONPETIBITATE SANO BATEN ALDE EGITEA (parte hartu eta ondo pasatzea da garrantzitsuena).
- TALDE LANEAN ARITZEA (talde bakoitza eta talde guztiak elkarrekin).
- EUSKERA SUSTATZEA.
- PAREKIDETASUNA BERMATZEA.

■ ERREMONTA



Etxeberria IV, pelotari emateko unean, semifinalean. Lehenengo finala izango du gaurkoa. Argazkia: Maialen Andres.

Bi sagardotegi eta txapeldun bakarra, erremonteko finalean

Sagardoaren Txapelketako finala jokatu dute, gaur, Etxeberria IV eta Ionek, Matxin III eta Etxeberria IIIaren kontra. Bereziartua eta Gurutzeta sagardotegiak ordezkatzan dituzte.



BEÑAT LOS ARCOS AYERDI

ERREMONTA final haundia jokatu da gaur, IV. Sagardoaren Txapelketako finala. Galarretan, bi sagardotegi izango dira elkarren kontra: Bereziartua eta Gurutzeta. Indarrak neurtuko dituztenak, ordea, erremontistak izango dira. Bereziartuaren izenean ariko dira Etxeberria IV eta Ion, eta Gurutzeta ordezkatzuz Matxin III eta Etxeberria III. Galarretan izango da, 16:00etatik aurrera.

Hasiera batean, apirilaren 19an jokatzea zen finala. Baina Etxeberria IIIak sorbaldeko arazoekin amaitu zuen semifinela, eta astebete atzeratu zuten. Gaur, beraz, sasoi batean izango dira lau protagonistak, onena emateko prest. Eta eman beharko dute, txapeldun izan nahi badute.

Finalera, antzeko ibilbidea

Final haundira iristeko, ibilbide berdintsua izan dute bi bikoteek. Ligaxkan, talde desberdinetan aritu ziren: Etxeberria IV eta Ion A multzoan, eta Matxin III eta Etxeberria III B multzoan. Arerio gogoragoak topatu zituzten ligaxkan, eta azken jardunaldian lortu zuten, biek, finalerdietarako txartela, partidu erabakigarria irabazita.

A multzoan, Uterga eta Olazar (Saizar) izan ziren nagusi, ligaxkako hiru partiduak irabazita. Etxeberria IV eta Ionek, bigarren postua jokatu zuten Ezkurra eta Endikaren (Larre-Gain) aurka. Eta baita lortu ere. Partidua eta semifinaletako lekua, biak eskuratu zituzten.

Berdintsu aritu dira Matxin III eta Etxeberria III. Juaristi eta Agirrezabala (Petrítegi) nabarmendu ziren B multzoan, partidariak galdu gabe, eta Gurutzetaren ordezkariak sailkatu ziren bigarren.

Semifinaletan, iraulia

Semifinaletan, ordea, hautsi egin zituzten pronostikoak, bi bikoteek. Bigarren postuan

Bereziartuak eta Gurutzetak, Petrítegi eta Saizar kanporatu zituzten semifinaletan, ligaxkan nagusi izan zirenak. Beraz, unerik onenean iritsiko dira finalera.

sailkatuta, beste multzoko liderrak izan zituzten aurrez aurre, partidurik galdu gabek. Eta orduantxe galduarazi zieten lehena. Bereziartuak nagusitasunez irabazi zion Petrítegiri (40-27), eta Gurutzeta gailendu zitzaion Saizarri (40-33).

Ligaxkako bikote onenak kanporatuta, unerik onenean iritsi dira finalera. Ostegunean aukeratu zituzten pelotak, eta laurak ziren gustora. Pelota biziagoak hartu zituen Bereziartuak, eta motelagoak Gurutzetak. Ez dira aitzakia izango, beraz. Gakoa beste nonbait egongo da. «Partiduaren hasiera izango da klabea», dio Etxeberria IIIak.

Etxeberria IVak lehen finala

Etxeberria IV eta Ionek, azpeitiarrak biak, bikote beteranoagoa izango dute aurkari. Aurrelariak lehenengo

finala du gaurkoa, baina Ion bikotekideak ez du uste nabarrituko duenik esperientzia falta: «Aritz konfiatuta dago, eta final ona egingo du, ziur».

Aurkariak ere, garrantzia kentzen diote horri. «Txispa askorekin ari da jokatzen, eta lana emango digu», dio Matxin IIIak. Etxeberria III izango da Kontrapuntua: «40 urterekin, kirol-ibilbidearen beherakadan, sari bat da niretzat, final bat jokatzea».

Beste hiru partidu, gaur

Gaurko bigarren partidua izango da finala. Aurretik, Ezkurra II-Larrañaga eta Segurola-Saldias ariko dira. Finalaren ondoren, berriz, Urriaza-Endika eta Juaristi-Barrenetxea IVak jokatu dute hirugarren partidua, eta Juanenea-Aizpuru III eta Matxin VI-Zubirik emango diote amaiera jaialdiari. ■

■ ZIKUÑAKO AMA

Orexara irteera, bihar 08:30etan

Zikuñako Ama txirrindularitza taldeak, Orexara irteera egingo du bihar. Goizeko 08:30etan abiatuko dira, Zinkoeneatik. Taldean, 71 kilometroko ibilbidea osatuko dute Tolosaldeako herriraino. ■

■ ERRUGBIA

Neskek, Zazpiko torneo Eibarren

Hernaniko errugbi taldeak, emakumezkoetan, Zazpiko Torneoa jokatu du gaur. Eibarren izango da txapelketa, Unbe zelaian, arratsaldeko 15:30etan. Bestalde, kadeteak, infantilak, alebinak eta benjaminak, Donibane Lohitzunen ariko dira bihar goizean. Thomas Olano torneo izango dute jokoan, Xantako zelaian. ■

■ ARRAUNA

Trainerilla Liga, gaurtik

Hernaniko arraunlariak Gipuzkoako Trainerilla Ligan ariko dira, gaurtik. Nesken jubenil eta seniorrek hartuko dute parte, eta Zarautzen izango dituzte lehenengo bi lehiak, gaur eta bihar. Gaurko saioa arratsaldeko 16:00etan izango dute, eta biharkoa, berriz, goizeko 10:00etan. Joxean Elortzaren omenezko bandera izango da jokoan, eta Ligarako puntuak ere bai. Guztira, sei jardunaldi izango ditu Ligak. Hurrengoak, Orion, Getarian, Hondarribian eta Mutrikun. ■

■ SQUASHA

Squash Txapelketan izen-ematea, maiatzaren 4ra arte

Zabalik da XIX. Squash Txapelketan izena emateko epea. Maiatzaren 4ra arte izango da apuntatzeko aukera, eta kiroldegian egin behar da. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu: 943 55 21 85. ■

■ BOLA

Gabirian, Gipuzkoako Kopako hirugarrena

Bolatokiko Gipuzkoako Koparen tirada berri bat jokatu da, bihar, Gabirian. Aurreko asteburuan atsedean hartu ondoren, Kopari ekingo diote berriro, jokalariek. Bi saiotan ariko dira: goizeko 10:00etatik 11:30etara, eta arratsaldeko 16:30etatik 17:30etara. Kopako hirugarren jardunaldia izango da. ■

■ ESKU PELOTA BERRIA TXAPELKETA

Goi-mailako pelotariak gaur, lehen kanporaketa bukatzeko

Kiroldegiko frontoian izango dira partidua, 16:30etan. Hernaniko 4/5 txapelketa ere jokatu da, goizeko 11:00etatik.

BERRIA Txapelketaren lehen kanporaketa amaitzen da. Azkeneko bi eliminatoriak jokatuko dira asteburu honetan. Horietako bat, Hernanin, Oiarzungo Oiarpe eta Portugaleteko Izarra taldeen artean. 16:30etatik aurrera ariko dira, kiroldegiko frontoian.

Hiru kategoriatako pelotariak jokatuko dute. Kadeteetan, Ugalde III eta Etxeberria, Oiarpekoak, Izarrako Riol eta Sancen kontra ariko dira. Partidu estua espero da, bi bikoteek erakutsi baitute maila ona. Gazteetan, berriz, Flores eta Arzallusek (Oiarpe), Alda eta Arandiarren (Izarra) kontra jokatuko dute. Portugaletekoak dira faboritoak, Arandia fitxatu berriarekin. Bikote oiarztuarra, bere aldetik, bi atzelarik osatzen dute.

Eta nagusietan, azkenik, Ugalde anaiak (Oiarpe) lehiatuko dira Perez eta Jaiorekin (Izarra). Oiarzungo bikoteak du aukera gehien, aurrelaria 22 urtez azpiko onenetakoa baita, eta anaia atzelariak eskuin oso indartsua du.

Lau partidu, 4/5 txapelketan Hernaniko 4/5 txapelketa ere



Berria Txapelketaren kanporaketa bat jokatuko da, gaur, Kiroldegiko frontoian.

Oiarpe eta Izarra ariko dira elkarren aurka, bigarren kanporaketera pasatzeko lehian.

jokatuko da gaur. Lau partidu izango dira.

Nagusietan, Iñigo Urkizu Jon Etxegoienek kontra, eta Mikel Zurutuza Ekaitz Cisnerosen aurka. Biak goizeko 11:00etan.

Eta kadeteetan, Xabat Pagola eta Endika Arizmendi ariko dira elkarren kontra goizeko 11:00etan, eta Iñigo Urruzola eta Ander Lazkano, berriz, arratsaldeko 15:00etatik aurrera. ■



Madrilgo maratoin ariko dira lau hernaniar, bihar.

■ ATLETISMOA

Lau hernaniar, Madrilgo maratoin

MAPOMA, Madrilgo maratoin izango da bihar, eta Hernani ordezkatuta egongo da bertan. Lau hernaniarrek hartuko dute parte. Argazkian, ezkerretik eskuinera: Sergio Uzkudun, Iñigo Uzkudun, Martxel Rodrigo eta Paco Gallego. Hiru hilabete eman dituzte gogor entrenatzen, eta iritsi zaie hainbeste itxaron duten eguna. Prestaketa on bat egin ondoren, beren onena ematen saiatuko dira, lasterketaren 42 kilometroetan. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

■ KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

ESKU PELOTA - XI BERRI TXAPELKETA				ESKU PELOTA - 4/5 Txapelketa			
Seniorak	Ugalde anaiak (Oiarpe)/Perez-Jelo (Izarra)	Hernanin	Gaur 16:30	Seniorak	Iñigo Urkizu-Jon Etxegoien	Hernanin	Gaur 11:00 (1)
Jubenak	Flores-Arallus (Oiarpe)/Alda-Arandia (Izarra)	Hernanin	Gaur 16:30	Seniorak	Mikel Zurutuza-Ekaitz Cisneros	Hernanin	Gaur 11:00 (2)
Kadetak	Ugalde III-Etxeberria (Oiarpe)/Riol-Saenz (Izarra)	Hernanin	Gaur 16:30	Kadetak	Xabat Pagola-Endika Arizmendi	Hernanin	Gaur 11:00 (1)
				Kadetak	Iñigo Urruzola-Ander Lazkano	Hernanin	Gaur 15:00 (1)
ERREMONTA				ERREKUGBIA			
1go partidu	Eduardo II-Lamela/Seguro-Salido	Galaneta	Gaur 16:00	Seniorak Enk.	Zuzpiko torneo	Uniben	Gaur 15:30
Sagardo.Tz.	Martin III-Etxeberria III/Bosberia IV-Ion	Galaneta	Gaur 16:00	Kadetak (sub 13)	Thomas Clavo torneo	Kartakoa	Bihar 09:45
2. partidu	Uniben-Endika/Juanito-Bosberia IV	Galaneta	Gaur 16:00	Infantak (sub 13)	Thomas Clavo torneo	Kartakoa	Bihar 09:45
4. partidu	Juanito-Azucena III/Molina VI-Zubiri	Galaneta	Gaur 16:00	Ardiok (sub 11)	Thomas Clavo torneo	Kartakoa	Bihar 09:57
				Borjeak (sub 9)	Thomas Clavo torneo	Kartakoa	Bihar 10:10

†

I. URTEURRENA

Luisa Izagirre Genua

Erreza izan zen zu maitatzea; ezinezkoa, ordea, zu ahaztea. Beti gurekin izango zara

ETXEKOAK

Hernanin, 2014ko apirilaren 26an

†

I. URTEBETETZEA

Xanti Lujanbio Lasa

2013ko martxoaren 21ean hil zen, 91 urte zituela

Manoli Olano Garaia

2013ko apirilaren 21ean hil zen, 94 urte zituela

-Goian beude-

Zuekin pasatu ditugun momentu zoriontsu guztiak gogoratu, goxotasunez oroitu zaituztegu. Betiko gure bihotzetan, aita, ama, aitona eta amona.

ETXEKOAK

Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko 12:00etan, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko apirilaren 26an

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnua.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA



Jon Ander Elortza erremontista ereñotzuarra, Txilibita baserriaren atarian. Bertakoa da Elortza.

■ ERREMONTEA JON ANDER ELORTZA

«Helburua? urte pare batera debutatzea»

Jon Ander Elortza ereñotzuarra erremontean aritzen da. Bi urte eta erdi daramazki eta Euskal Herriko txapelketako txapelduna da eta Gipuzkoako azpitxapelduna. Datorren hilabetean GRAVN Txapelketako finala jokatzekoa da.

ORAIN dela bi urte eta erdi hasi zen Jon Ander Elortza erremontean jokatzeko eta dagoeneko bi txapela jantzi ditu: GRAVN Txapelketan, sub 22 mailan, iaz, eta Euskal Herriko Txapelketan, joan den hilabetean. Horrez gain, azpitxapeldun izan da aurtengo, Gipuzkoako Txapelketan. Erremontean ondo moldatzen dela argi utzi du 20 urteko ereñotzuarrak. Euskal Herriko txapelketa Andoaingo Gaztelekuren izenean jokatu zuen, baina Galarretako eskolan aritzen da, Hernanin. Bere bikotea, Ibai Martikorena, hernaniarra ez zenez, ez zuten aukerarik izan Hernaniren izenean jokatzeko. 40-33 irabazi zuten.

Eskuz, 8 urtetatik

Elortza, erremontean azken urteetan badabil ere, pelota mundua ez da berria beretzat.

Eskuz aritu izan da zortzi urte zituenetik. Hernaniko klubean ibili zen. Eskuetatik gaizki ibiltzen zen ordea, eta hainbeste urte eta gero, pixka bat nazkatu ere bai eta pelota uztea erabaki zuen: «Baina aitak ez zuen nahi kirolik egin gabe egotea eta berak bultzatuta sartu nintzen erremontean», azaldu du.

Osaba, profesioaletan ibilia

Jon Ander Elortzaren osaba, Antton Ansa aranoarra, profesioaletan ibili zen 8 bat urtez eta berarekin hasi zen probatzen: «Urnietan entrenatzen genuen. Probatzeagatik hasi nintzen eta gustoa hartu diot. Hori bai, hasieran ez nuen bat bera ere zuzen jotzen. Uztekotan ere egon nintzen, baina pixkanaka gustatzen hasi zitzaidan. Egia esan, eskuz baino komodoagoa da. Xextoa jarri

«Hasieran ez nuen bat bera ere zuzen jotzen. Uztekotan ere egon nintzen, baina pixkanaka gustatzen hasi zitzaidan»

eta listo, ez daukazu takoak jartzen aritu beharrik».

Galarretako eskolan

Elortzak Oriamendiko erremonte eskolan jokatzeko du, Galarretan. Denera 15 bat gazte ari direla azaldu du. Batzuk hasi berriak omen dira eta horien artean Aritz Murgiondo hernaniarra dago. Gainerakoak, Azpeitia, Donostia, Urnietan... eta ingurukoak

dira. Entrenatzaile lanetan, berriaz, Endika Barrenetxea Hernaniko erremontista profesionala ari da. Asteazken egunetan entrenatzen dute, ordu eta erdiz.

Elortza aurrelaria da erremontean, eskuz atzean aritzen omen zen. Goitik hobeto jotzen diolako da aurrelaria.

Txapelketa gutxi

Erremontean jende gutxi ari dela azaldu du Elortzak eta txapelketak ere hiru besterik ez direla: «Gipuzkoakoa, Euskal Herrikoa eta GRAVN besterik ez daude. Gipuzkoakoa, gure artean jokatzeko dugu, Galarretako eskolako artean. Eta Euskal Herrikoan eta GRAVNe gu eta Nafarroako taldekoak gaude. GRAVN orain jokatzeko dugu eta finalera pasako gara zuzenean». Haundien mailan jokatzeko duela uste du Elortzak, bera

baita taldeko zaharrena.

Maila ona

Erremontista eta talde gutxi egon arren, maila ona dagoela azaldu du Elortzak: «Euskal Herriko txapelketan bertan, oso lehia parekatua izan zen eta polita izan zen. GRAVNe ez dakigu oraindik zeinen aurka jokatzeko dugun, baina lehia estua izango dela pentsatzen dut».

Profesioaletara pasatzea helburu

Helburuen inguruan galdetuta, hasteko, GRAVN txapelketa irabazi nahi du Elortzak eta aurrera begira, debutatu egin nahiko luke pare bat urte barru edo. «Aukera badago, eskuz baino errazagoa da, dudarik gabe, baina gogoia ere jarri behar zaio. Horretan saiatuko gara. Eta noski, zortea ere behar da», dio. ■

UDALA - PLENOA

Zozketa egin da mahaietan zeintzuk egongo diren zehazteko

Europako hauteskundeak maiatzaren 25ean izango dira eta osteguneko Plenoan zozketa informatikoa egin zen mahaietan egongo diren herritarrek aukeratzeko. Udalak herritar horiei jakinaraziko die.

OSTEGUNEAN Plenoa izan zen Astigarragako udaletxean. Oraingo honetan, gai bakarra landu zuten: Europar Parlamenturako Hauteskundeak. Zozketa informatikoa. Hauteskunde egunean, mahaietan

zeintzuk egongo diren zozketa-tu zen. Astigarragan 5 mahai egongo dira eta mahai bakoitzean, presidentea eta bi bokal. 15 herritar izango dira mahaietan egongo direnak, baina dagokion bezala, ordez-

koak ere izango dira. Udalak abian jarri du prozedura dagoeneko eta tokatu zaien herritarrei jakinaraziko die.

Europar parlamentuko hauteskundeak maiatzaren 25ean izango dira. II

GALTZAUR JUBILATU ELKARTEA



Bingoan ere aritzen dira Galtzaur elkarteak kideak, astelehen eta astezkenetan.

Urteroko martxa egingo dute, Martutenera

Maitzaren 17an izango da. Goizeko 09:30etan abiatuko dira egoitzaetik eta ordubeteko bueltaren ostean, hamaiketako egingo dute.

GALTZAUR pensionista eta jubilatutakoak martxa antolatu du urtero bezala. Maiatzaren 17an izango da. Ibilbidea ere urterokoa izango da. Goizeko 09:30etan abiatuko dira egoitzaetik eta Martutenera joango dira. Auzoari buelta emango diote eta egoitzara itzuliko dira. Ordu beteko buelta izango da, gutxi gorabehera. Ondoren, indarrak berreskuratzeko, hamaiketako ederra egingo dute.

Apuntatu egin behar da Jakinarazi dutenez, parte har-

Apuntatzeko lista jarriko dute egoitzan, astebete lehenago.

tu nahi duten guztiek apuntatu egin behar dute, irteera baino lau egun lehenago. Guztia ondo antolatzeko beharrezkoa dela azaldu dute. Astebete lehenago jarriko dute lista.

Hamaiketako, martxa egiten dutenentzat Martxa egiten duten guztientzat izango da hamaiketako. Eta egiten ez dutenak edo apuntatzen ez direnak hamaiketarik kanpo geratuko dira. Bestalde, arduradunek azaldu dute, apuntatu bai, baina ibilbide guztia egiteko gai ez direnek ere hamaiketako izango dutela. Gainera, pertsona horiek behar izanez gero, laguntza ere jasoko lukete.

Elkarteko kide guztiei animatzeko eta parte hartzeko dei egiten diete. II

GURE ESKU DAGO

Metroak erosteko aukera izango da bihar

Joseba Barandiaran plazan jarriko dute mahaia. Musika eta pintxoak ere izango dira.

MARTXAN da Gure Esku Dago dinamika Astigarragan. Asteazkenean bilera egin zen dinamika martxan jartzeko eta kolore guztietako jendea bildu zen bertan. Dagoeneko hasi dira ekintzak antolatzen. Bihar bertan, metroak saltzen egongo dira Joseba Barandiaran plazan (12:30-14:30). Musika eta pintxoak ere izango dira.

Aurkezpena eta argazkia Maiatzaren zehar ere, antolatu dituzte ekintza gehiago. Hila-

ren 10ean, hain zuzen, aurkezpen bat egingo dute eta ondoren, argazki bat aterako dute. Argazki horretan, herritarrez gain, herriko pertsonaia esanguratsuak biltzen saiatuko dira.

Giza-katea, Astigarragan Maiatzaren 24an, giza-katearen saiakera egingo dute. Ibilbidea ez dute zehaztu oraindik.

Bideo bat egiteko asmoa ere badute. II

MUSIKA GIROA

Eiraren emanaldia, atzeratu egin dute

Eira musika taldeko kide batek ezin zuen gaur taldearekin jo eta eguraldi kaxkarraren iragarpena ere kontuan izanda, Eira taldearen emanaldia atzeratu egin dute. Maiatzaren 17an joko dute. II

LITERATUR SOLASALDIA

‘Operación Dulce’ hizketagai, etzi

Hilabete honetako Literatur Solasaldia Ian McEwan idazlearen Operación Dulce liburuaren inguruan izango da. Astelehenean izango da, 19:30etan, Liburutegian. II

PRESO ETA IHESLARIAK

Astero bezala, kontzentrazioa etzi

Preso eta iheslariak kalera lemapean, kontzentrazioa deitu dute astelehenean, 20:00etan, Joseba Barandiaran plazan. II

IPUIN SAIOA

15 urtetik gorakoentzako saioa, doan

Maite Frankok ipuin saioa eskainiko du asteartean, 15 urtetik gorakoentzako: Gauean esnatzen delako. Liburutegian izango da 19:30etatik aurrera, doan. II

ZINE FORUMA

‘El metodo Arrieta’ emango dute

Arrieta ahizpek komunikatzeko sistema propioa sortu zuten haien gorputzek jarritako mugak atzean utziz. Esperientzia hartan oinarrituta egin zen *El metodo Arrieta* pelikula eta ikusgai izango da asteartean 18:00etan, kultur etxean. Bertan izango dira protagonistak. II

AEK

Sexualitate tailerra, asteartean

Sexualitate tailerra antolatu dute asteartean, 09:30etan, doan. Izena eman behar da: zilegieskola@aek.org edo 607 610 687. II

AUZOKONPOSTA

Arrobitxulokoentzat bilera, asteartean

Hirugarren auzokonposta gunea zabalduko da maiatzaren, Arrobitxulon. Parte hartuko duten bizilagunek ikastaroa dute asteartean, 19:30etan. II

■ KAKO JATETXEA MARTIN ETA MARI CARMEN OLLOKIEGI

«Amonak eta amak zekitenarekin hasi ginen eta horri eutsi nahi izan diogu»

Kako jatetxeko jangela ikuilu eta kupeltegi izan ziren garai batean. 1968an hasi zuen ibilbidea, hasieran, merendero bezala. Martin eta Mari Carmen Ollokiegik daramakite gaur egun jatetxea, euskal sukaldaritza tradizionalan oinarritua. Otsailean, hain zuzen, sari bat jaso zuten Jakitea sukaldaritza tradizionalaren elkartearen eskutik.

GAUR egungo Kako jatetxea, Markesaren jauregiaren parte zen garai batean; Murgiako jau-regira sartzeko atezaindegia. Martin eta Mari Carmen Ollokiegiren aitona eta aitak Markesarentzat egiten zuten lan eta bertan bizi ziren, trukean. Behean, egun jantokia dagoen lekuan, ikuilua eta kupeltegia zituzten. «Bost behi eta zaldi bat zeuden ikuiluan. 1968an abereak kendu, karearekin eta ondo garbitu, eta etxeko produktuak saltzen hasi ginen bertan: babarruna, barazkiak, sagardoa... Lau xoxa ateratzeko», gogoratzen du Martinek. Gerora, merendero moduan funtzionatu zuen. «Arratsaldean irekitzen zen eta bertara etortzen zen jendea bakoitza bere bokadiloarekin. Periodikoan bilduta ekartzen zuten. Hona, edatera etortzen ziren. Baserritarak eta kamioneroak izaten ziren. Arratsaldea horrela pasatzen zen, tabernan sartuta. Gero, soldaduak hasi ziren etortzen. Loiolako kuarteletik etortzen ziren, autobusean. Euskaldunak izaten ziren, Goierri ingurukoak. Soldaduska egiten ari zirenak edo. Aitari laguntzen zioten eta ordainetan afaldu egiten zuten», kontatzen du Martinek.

80ko hamarkadan, berriaz, kupeltegia hustutzen hasi ziren eta haien lekuan mahaiak jarri zituzten. Ordura arte, gaur egun Caixa dagoen lekuan zuten tola-rea eta bertan egiten zuten sagardoa. Handik kupeletara eramaten zuten. Txotxean edateko aukera zegoen. Orain, anaietako batek Mina sagardotegia dauka eta beratik ekartzen dute sagardoa, botilan. Beraz, pixkanaka pixkanaka joan da Kako aldatzen, gaur egungo jatetxe bihurtu arte.

Gurasoek hasitako bidea

«Aita eta amak jarri zuten Kako martxan. Baina aita urte gutxira hil zenez, anai-arrebak hasi ginen amari laguntzen», azaldu du Martinek. Lau dira: hiru anai eta arreba bat. Urteekin, bi anai zaharrenek euren bidea egitea erabaki zuten eta gazteenak geratu dira Kako jatetxean: Mari



Mari Carmen Ollokiegik Kako jatetxeko terrazan.

«Orain bezeroak aurrez jakin nahi du zenbat ordainduko duen; menu itxiak nahi ditu eta hainbat aukera ere badauzkagu»

Carmen eta Martin.

Bertako sukaldaritza tradizionala landu izan dute beti Kakon eta gaur egun ere mantentzen dute hori. «Guk beti, bertako jatena prestatu izan dugu, klasikoa edo tradizionala. Hori da egiten dakiguna. Amonak eta amak zekitenarekin hasi ginen. Egia esan, sukaldarako esku ona zuten. Lau gauza egoten ziren, eta gauza gutxiarekin kristoren kazuelak prestatzen zituzten. Orduan, bakailua era guztietara, tripa-kiak, tortila eta mingaina jartzen ziren. Arrebak ere oso esku ona du», dio Martinek. Mari Carmen sukaldean aritzen da eta Martin zerbitzatzen. Kakon, talde sendoa dutela gaineratu du Martinek, 26 eta 40 urte daramazkiten langileak dituzte.

40 urtetan aldaketa gutxi plateretan

Orain dela 20 bat urte hartu zuten jatetxeko ardura Mari Carmen eta Martinek, eta hasieratik ordura artekoari eutsiko ziotela argi zuten: «Argi izan dugu beti hasierako oinarriari eutsiko geniola, sukaldaritza tradizionalarekin jarraituko genuela». Hala ere, tarteka sartzen dituzte berezitasunen batzuk: «Adibidez, arreba Salamankan izan zen eta hango plater bat gustatu zitzaion: garbantzuak onddoekin. Hemen jarri izan dugu, baina beti horrelako berritasunak izaten dira; azkenean, sukaldaritza tradizionala platerak. Eta orain dela 20 urte sartu genuen plater berezi bezala perretxikoen pudina.

Gaur egun klasiko egin da».

Beraz, Kakora joanez gero, honako aukera izango da: babarrunak aza eta odolkiarekin, bakailua, xapoa rebozatua, legatza, kokotxak saltsan, txuleta...

Kartaz gain, menuak

Naturaltasun osoz, garaian garaiko produktuak sartzen dituzte kartan, eta bertakoak. «Udan, adibidez, babarruna kendu egiten dugu eta orain ilar berriarekin hasiko gara. Gero, tokatzen dena: antxoak, hegaluzea, onddoak, ehiza... Datorren bezala. Eta noski, bertakoa. Baina hori normala da, ze erabiliko dugu ba? Dagoena», dio Martinek.

Orain arte kartarekin bakarrik funtzionatu izan dute, baina orain gutxi menuekin ere hasi dira lanean. «Krisiarekin gauzak aldatu egin dira eta orain bezeroak aurrez jakin nahi du zenbat ordainduko duen; menu itxiak nahi ditu. Aukera desberdinak dauzkagu: sagardotegi menua, degusta-

zioko bi menu eta eguneko menua», azaldu du. Krisia asko nabari dela gaineratu du.

Sekretua, kalitatea eta prezio ona

Hainbeste urtetan jarraitzeko sekretua zein den galdetuta halaxe dio Martinek: «Jendea Kakora etortzen da kalitatea eta prezioagatik. Hona etortzen den jendea da, txukun jan nahi duena, baina gehiegi ordaindu gabe. Kalitatea, prezioa eta tratu ona. Azkenean, guk zer nahi dugu beste jatetxe batera joaten garenean? Gauza txikiak ere kontuan hartu behar dira. Xoxik gabe dago jendea eta abusoekin haserre. Zorrotzagoak gara. Baina normala da, jendeak ordaindu egiten du eta exijitu ere egin behar du. Lehen zakarrak izaten ziren jatetxeetan ere jendea ibiltzen zen, baina orain hori bukatu da. Jendea asko zaindu behar da».

Web gune berria ere martxan jartzekoak dira. Helbidea: www.kakojatetxea.es. ■

■ GIZA-PROBA EMARRI TALDEA

3.000 euro jokoan, Ibarraren aurka

Aurten ez da nesken txapelketarik izango, Emarri eta Ibarako taldea bakarrik baitaude lehiarako. Hori horrela, apustua egin dute bien artean. Maiatzaren 17an izango da Aian eta 3.000 euro izango dira jokoan. Ikuskizun ederra izango da. Beste desfiorik oraindik ez, baina erakustaldi pare bat ere badituzte, Oiartzunen eta Astigarragan.



Goizuetako desfiorako irudia. Herriko mutilen aurka aritu ziren Emarrikoak. Taldekide guztiak: Ane Oiartzun, Olatz Mitxelena, Marina del Rio, Eneritz Gartzia (astigarrak), Garazi Moreno, Mirari Lizaso, Karmele Irastorza, Araitz Elgeta, Eneritz Arbelaiz, Onintza Azpiroz, Onintza Mitxelena (oiartzuarrak), Iratxe Lopetegí (lezotarra) eta Egoitz Iturbe (urretxuarra, entrenatzailea).

ASTIGARRAGAKO Emarri taldeak giza-proba apustua egin du Ibarako taldearekin. Maiatzaren 17an izango da 22:00etatik aurrera, Aiako probalekuan. Aurreko astean, apirilaren 16an bildu ziren probaren nondik norakoak zehazteko eta kontratua sinatzeko. 3.000 euro daude jokoan. Proba baino bi ordu lehenago, 20:00etan izango da pisaketa.

Zortzi emakume, zortzi emakumeren aurka ariko dira, 550 kg-ko harriarekin. Hamar minutuko bi txandatan, zeinek plaza gehiago egin izango da lehia. Tartean, beste hamar minutuko atsedena izango dute. Bi taldeak batera ariko dira, saltsa gehiago sortzeko. Talde bakoitzak, plaza barruan, entrenatzaile edo laguntzaile bat eramateko aukera izango du. Federazioako giza-probatuak araudiaren arabera jokatu beharko dute eta Gipuzkoako Herri Kirol Federakuntzak kontrolatuko du proba.

Aurretik, erakustaldia Oiartzunen

Hemendik aurrera, bateko eta besteko festak direla, desfioro eta erakustaldiak direla, denboraldian bete-betean sartuko da Emarri taldea. Urrutira joan gabe, maiatzaren 10ean bertan, Oiartzunen erakustaldia eman-go dute. Gure Esku Dago egunaren barruan izango da. Kilometro bat egin beharko

«Txapelketarik ez badago ere, erakustaldiak eta desfioroak izango dira. Guk, behintzat, segitzeko asmoa dugu»

dute, 550 kg-ko harriarekin. Goizeko 11:00etan izango da, plaza inguruan. Eta ekainaren 1ean, Ziklobiaren barruan, Astigarragan izango dira.

Ergobiko festetatik sortua

Astigarragako giza-probako nesken taldea orain bi udara sortu zen, Ergobiko festei begira. «Ergobiko jai batzordeak apustua antolatu zuen, Astigarraga eta Ergobiko 8 neska Ergobiko 4 mutilen aurka. Apustu horretarako prestatzen hasi ginen, eta hortik sortu da taldea», azaldu du Eneritz Gartzia. Hasiera hartan, Ergobiko neskak izena zuen taldeak, baina urtebetera, izena aldatu zioten: Emarri jarri zioten; emakumea eta harria, eman eta harria. «Pixkanaka taldea uzten joan ziren batzuk eta Ergobikorik ez zen inor geratzen. Horregatik aldatu genion izena», dio Gartzia.

Gaur egun, Astigarragako 4 neska, Oiartzungo 7 eta Lezoko 1 dabilta. Entrenatzailea, berriz, urretxuarra da.

Halaxe azaldu du Karmele Irastorza oiartzuarrak: «Goizuetako desfiorako ez zutela taldea osatzen eta, guri esan ziguten ea animatuko ginen. Herri kirolean mugitu izan gara beti, sokatiran ere aritzen gara, eta animatu egin ginen. Goizuetarako prestatzen hasi ginen eta hemen jarraitzen dugu».

Txapelketa ordez, desfiora

Iaz, txapelketa jokatu zuten, Ibarra eta Orioren aurka. Aurten, Orioko taldea desageritu egin da eta txapelketarik gabe geratu dira. Horren ordez egingo dute Ibarraren aurkako desfiora, maiatzaren 17an.

550-600 kg-ko harriak

Giza-proban, zortzi lagunek hartu ohi dute parte: lau aurrean, bi harriaren alde banatan eta bi atzean. Arnes eta kate batzuen bidez, burdinezko euskarriari lotuta egoten dira kirolariak eta beste kate baten bidez euskarriari lotzen da harria. Katearen neurria zehaztuta dago federazioaren arauetan, baina burdina nolakoa izan ez. Nahi den arinena jarri liteke. Emarrikoek, Ergobiko festetarako egin zenarekin jarraitzen dute. Harriaren pisua ere arautua dago. Neskak, 550-600 kg

arteko harriekin aritzen dira. Eta parte hartzen duten kirolariak ezin dute harriaren pisua gaintitu. Esaterako, 550 kg-ko harria bada, taldeko 8 kideen pisuak gehituta, ezin dute hortik pasa. Probaren aurretik pisatu egiten dira. Pisua pasaz gero, pasatako kilo bakoitzeko, bi kilo-ko gainkarga izaten dute.

Jarraitzeko asmoz

Aurten, emakumeen bi talde bakarrik daudela ikusita, jarraitzeko zaila ikusten ote duten galdetuta, ezetz diote: «Jaietan erakustaldiak izango dira. Txapelketa jokatzeko aukera ez dugu izango, baina hori ez da garrantzitsua. Erakustaldiak eta desfioroak izango dira eta mutilekin aritzeko ere arazorik ez dago. Guk, behintzat, segitzeko asmoa dugu».

Animatzeko deia

Astigarragako plazan entrenatzen dute Emarriko kideek. Astean bitan harriarekin aritzen dira eta beste egun batez fisikoa lantzen dute. Herriko eta inguruko neskei dei egiten diete animatzeko eta probatzera azaltzeko konpromisorik gabe. Taldean giro ederra dutela gaineratu dute eta plaketan ere oso giro polita izaten dela. Harremanetan jartzeko: emarritaldea@gmail.com.

Eta neskei bakarrik ez, mutilei ere egiten diete dei animatu daitezela taldea sortzera. ■

■ ESKU PELOTA

GRAVNIko finalerdiak gaur, Otañok eta Gurutzealdeak

GRAVNI Txapelketa azken txandapan sartu da eta gaur finalerdiak jokatu dira Hendaiko Beltzenia trinketean. Bertan parte hartuko dute Astigarragako bi pelotarik, Gipuzkoaren izenean. Jubeniletan, Argoitz Otaño eskuz banaka neurtuko da Nafarroaren aurka. Goizeko 10:00etatik aurrera izango da. Sub 22an, berriz, Oier Gurutzealdeak Loitegirekin jokatuko du eskuz binaka. Iparralde izango dute aurrez aurre, 16:00etatik aurrera. ■

■ SASKIBALOIA

Saskibaloi eskola izango da bihar

Mundarrok antolatuta, saskibaloi eskola izango da bihar. La Sallen izango da saioa 10:00etatik 11:30etara. Umeen artean saskibaloia bultzatzeko asmoz antolatzen dira. ■

■ MENDI BIZIKLETA



Irazustabarrena gustora, Tuterako probarekin

Apirilaren 13an, Caja Rural Nafarroako Kopako laugarren proba jokatu zuen Aritz Irazustabarrena Tuteran eta gustora da lortutako emaitzarekin. 15garren geratu zen elite mailan eta 17garrena orokorrean. Bi aldiz erori zen Astigarragako txirrindularia eta aurrenekoan denbora pixka bat galdu zuen. Azkeneko bi bueltak gogorrak egin zitzaizkiola azaldu du, bero egiten baitzuen. Dena dela, gustora geratu zen proba bukatzearekin, asko erretiratu egin baitziren, proba teknikoa zela eta. Berez, bihar Bilbon hartu behar zuen parte Euskadiko Openean, baina ez du aukerarik izango. Hurrengo proba Nafarroakoa izango da berriz. Maiatzaren 4an jokatuko da, Lizarran. ■

I KAZETARITZA OLATZ ARRIETA BARANDIARAN

«Kazetarion akatsa da zintzo eta gaizto rolak banatuz berriakosatzea»

Irudiaren eta hitzaren arteko jolasak egiten ditu. Jolas motzak, flash modukoak; eta zaparradan. Alfonbra gorrian argazki makinaren aurrean dauden izarrek ikusten dituzten argitxo azkarrak bezalakoak sortzen ditu berak. Argitxo azkarrak, bai, baina esanahiarekin. Aukeratutako hitz eta irudi bakoitzak esanahia du. Buruan duen informazio guztiaren laburpen txiki bat besterik ez da guri erakusten diguna: 40 segundoko zuzeneko, minutu inguruko bideoa. Azkarra, momentukoa.



OLATZ MITXELENA GARMENDIA

HALAKOXEA da XXIgarren mendeko telebistako kazetari baten lana. Horrelakoxea da Olatz Arrieta Barandiaranen lana. Astigarragako Gaztañaga baserrikoa da jaiotzez, baina urte asko igaro ditu hemendik kanpo; ikasten lehenengo, eta lanean ondoren. Astigarragako herritar askorentzat ezaguna bazen ere, gutako askok Sagar haundian, New Yorken, korrespontsal ezagutu dugu bere lanean, baina ibilbide luze eta oparoa izan duen kazetaria dugu bera. Astigarragara familia bisitatzera etorri eta bere ibilbidearen eta egindako lanaren berri emateko eskatu diogu.

Urte asko, Astigarragatik kanpo.

Halaxe da, bai! Kazetaritza ikasketak Bilbon egin nituen. Au pair joan nintzen Irlandara eta Estatu Batuetara. Kazetaritza ikasketak amaitu eta ETBn lan pixka bat egin nuen,

«Irailaren 11k kazetarion eta herritarron askatasuna muriztu zuen. Eta zer esanik ez, atzeritarrena (...). Atentatuaren ondoren lan egitea asko zaildu zen».

baina luzerako lanik ez zegoez Errusiara joatea erabaki nuen. Errusiera pixka bat banekien, eta hara hizkuntza hobetzera joan nintzen. 95 eta 96an izan nintzen bertan. 96ko ekainean berriro etxera itzuli eta ETBn lanean aritu nintzen. Gehiago ikasi nahi eta 98an New Yorkera joatea erabaki nuen, Nazioarteko Politika masterra egitera. Han konturatzeko 15 urte pasa eta iaz Europara, Bruselara, bueltatu nintzen.

Herrialde bat, helburu bat, arrazoi bat.

Oso desberdinak izan dira herrialde batetik bestera joateko arrazoiak. Errusiara, errusiara ikastera joan banintzen ere, abiatu aurretik komunikabide batzuetan, Euskaldunen Egunkarian eta Euskadi Irratian galdetu nuen ea handik egindako kronikak erosiko zizkidaten. Baietza jaso eta halaxe hasi nintzen lanean. Irratirako errusiar egunkariaren errepasoa egiten nuen eta nahiko lan zaila zen. Errusiara jakin bai, baina ordu asko pasa

ohi nituen egunkarietan murgilduta. Errusian ikasle egoitza batean bizi izan nintzen, eta leku asko eta askotako jendea ezagutu nuen. Hori izan zen onena.

New Yorkera ikastera joan nintzen, ez lanera. Euskadi Irratiak eurentzat lan egiteko eskatu zidan hara joan aurretik, eta han nengoela Radio Euskadik deitu eta eurekin ere lanean hasi nintzen. Garai horretan hango enpresa batean ere lan egiten nuen, eta 2000an EITBtik deitu zidaten. 2001ean pasatakoa pasa ondoren, enpresa horretako lana utzi eta telebistarentzat soilik hasi nintzen lanean.

Bruselara hurbiltzeko erabakia zailagoa izan da. Ardura handia da Europar Batasunak hartzen dituen erabakien berri ematea; nahiz eta geografikoki etxetik urruti egon, etxeko kontuekin harreman zuzena dutelako han hartzen diren erabakiek. Gainera, New Yorkera bakarrik joan nintzen, eta Bruselara lau joan gara. Famili erabakia izan da. Bertara joan aurretik liburu



Olatz Arrieta kazetari astigartarra Estatu Batuetan aritu da lanean urte askotan, eta orain g

asko irakurri, eta masterrean ikasitakoa oso presente mantendu ditut.

Irailak 11, lan egiteko modu baten bukaera.

Irailaren 11k kazetarion eta herritarron askatasuna muriztu zuen. Eta zer esanik ez atzeritarrena. Hori baino lehen, prentsa txartelak kartoizkoak ziren, eskuz idatzita zeuden eta nork bere argazkia pegatu behar zuen. Atentatuaren ondoren lan egitea asko zaildu zen, lekuetara sartzeko segurtasuna asko handitu, eta informazioa lortzea geroz eta zailagoa egin zen. Aldaketa horiek betirako izango dira.

Bulegoa, zure etxea.

Hasieran bai. Nere etxea eta kaleko kabinak. Telefono mugikorra izatea luxu ikaragarria zen, eta horregatik egiten nituen irratiarako kronikak eta tertuliak kabinatik. Ondoren, nazioarteko kazetariarentzat prentsa areto bat jarri zuten, eta bertan internetara sarbidea neukan (luxua, hori ere). EITBekin lanean hasi

nintzenean satellite transmisioak egiten ziren lekuan neukan nire bulegotoa.

Lanetik lanera alde handia egon ohi da. Egindako zein lan aipatu nahi zenituzke?

Errusian, jendearekin hitz egin, jendearen istorioak jakitea: zenbateko soldata, zer jan, non lan egin, nola ikusten zuten Errusia... Cremlinera joan eta bertako prentsaurreko bat ikustea harrigarria zen, baina herrialde baten historia herritarrek ezagutzeko ulertzea ere derri-gorrezkoa da. Askok oroitzen ditut adineko jendeari egindako elkarrizketak. Ia egun batetik bestera igaro ziren mundu batetik bestera, Estatuak berogailua ordaintzetik, kalean euren gauzak saltzera pasa ziren asko eta asko gauetik egunera.

Estatu Batuetako ia Estatu guztietan egon nintzen. Oso zine zalea naiz eta lehenengoz Oscar sarietan izan nintzeneko hura ongi gogoratzen dut. Astigarragan goizeko hiruretan sariak telebistaz ikustetik Tom Cruise eta besteak aurrez aurre ikusteko aukera izaterako sal-



utxi, Bruselara mugitu da.

toa harrigarria izan zen. Nahiz eta egia izan publizitate montaje bat besterik ez dela, oso oroitzapen ona dut.

Bestalde, Idahora joan nintzenekoa ere ezin ahaztu. Matrikula batean Arrieta ikus-tea, eta hainbat eta hainbat euskal jatorriko amerikar ikusi eta ezagutzea oso polita izan zen.

Laster dira Europako hauteskundeak. Desberdintasun handia dago Estatu Batuetako hauteskundeetarik Europako hauteskundeetara? Bai, ikaragarria. Telebistan ikusten den oparotasuna, handikeria eta zaletasuna egiazkoak dira. Estatu Batuetan ez dago komunikaziorako trebetasunik ez duen politikorik. Hemen, berriz, gutxi edo inork ere ez du trebetasun hori. Hangoak gertukoagoak dira. Leku bakoitzeko senatari edo kongresistak 20 bat pertsonako taldea du herritarrek egiten dituzten deiak hartu eta euren eskariei erantzuteko. Hemen, horrelako zerbait ikustea ia pentsaezina da. Behin, Obama oraindik hautagai ere ez zenean, New

Jerseyra joan nintzen autobus batean, eta bazirudien rock kontzertu batera gindoazela. Lehenengo mitin horretan ez zegoen ia segurtasunik, eta jende asko bildu zen. Estatu Batuarrek oso ongi dakite kanpaina bat montatzen.

Eta orain Estatu Batuetatik, Europar Batasunera.

Nazioarteko Politika masterra egin nuenean Europar Batasuna munduan inoiz gertatu ez den fenomeno bat bezala aztertu genuen. Egia esan, bixia da 28 herrialdek bat egiten dute eta lagunak dira gauza batzuetarako baina beste batzuetarako ez. Hori anomalia historiko bezala aztertzeak egunero bertako erabakien berri ematera egin dut salto. Eta zenbat eta hobeto ulertu, orduan eta gehiago gustatzen zait.

Urte bakarra baina gai asko.

Europar Batzordeak egunero prentsaurrekoa ematen du eguerdiko 12:00etan. Guk 12:00etako meza deitzen diogu. Bertan, Europar Batasunari buruzko edozein galdera egin

daiteke. Momentu horretan ikusten duzu Herrialde bakoitzak egun horretan zein kezka dituen. Ni oso gustura ari naiz Ukrainian gertatzen denaren berri ematen, beti interesatu baitzait Sobiet Batasuna, eta egungo Errusia. Mugak mugitzen direla ikusteak beti ematen du sustoa, baina gauzak bizi-bizirik eta mugimenduan daudenaren adierazgarri da hori.

Mugak mugitzeko nahia: Eskozian eta Katalunian adibideak.

Mugak mugitze horrek ezinegon handia sortzen du Batzordean. Zer gertatuko da? Eta baiezkoa ateratzen bada? Eskoziaren kasua argiago dago Erresuma Batuak erabakia errespetatuko duela esan duela. Espainian zer gertatuko den, ordea, ez dago argi. Batzordearen prentsaurrekoetan Kataluniako kazetariak beti galde-tzen dute gaiarekin lotura duen zerbait, eta Batzordeak beti hiru lerrotan idatzita dagoen erantzuna ematen du: momentua iristean erabakiko dutela. Baina

«Hasieran nere bulegoa zen nere etxea eta kaleko kabinak. Telefono mugikorra izatea ikaragarritzko luxua zen!».

«Estatu Batuetan ez dago komunikaziorako trebetasunik ez duen politikorik. Hemen, berriz, gutxi edo inork ere ez du».

«Ahal den infomrazio osoena eman ondoren ikus-entzuleak daukan heziketaren arabera osatuko du bere iritzia. Hori litzateke ideala. Arazoa da, eta gure herri honetan ere halakoa da, zer gertatzen den jakiteko bost egunkari irakurri beharra izan ohi dugula».

egia al da? Seguru ez dutela ezer idatzita eta erabakita? Agian bai, baina Europar Batzordea da Europar Batasuneko gobernu orokorra, eta ezin du herrialde baten barruko gaietan sartu, ezin du erakutsi baten edo bestearen alde egiten duen. Dena den, egia da Europar Batasunaren barruan egondako norbait independizatzeko balitz, Batzordeak zatitxo bat edukiko lukeela zintzilik eta bueltaka. Lehen Batasunekoa, orain nongoa? Hala ere, argi dago momentua iritsi arte ez dutela erantzunik emango.

1995etik 2014ra kazetari: lan egiteko modua asko aldatu da?

Pentsatu baietz! Errusian egunkariak irakurri eta kronikak egiten nituen. Euskadi Irratian tertuliak egiten genituen, eta bertan gai bat bost galderatan aletzeko aukera genuen, askoz errazagoa da horrela azalpenak ematea. Orain, berriz, 40 segundo besterik ez ditut azaldu nahi dudana azaltzeko. Oso zaila da minutu gutxitan azaltzea hartutako erabakiak, zergatiak eta horien guztien atzean dauden interesak eta iritziak. Batasunean, erabaki bakoitza hartu aurretik pauso batzuk ematen dituzte, eta gehienetan azkena bakarrik kontatzen dugu. Horrela zaila da gu ikusi eta entzuten ari denak informazio osoa izan eta bere iritzia osatzeta.

Kazetariaren eginbeharra informazioa ematea da.

Bai, baina gutxitan dugu nahi adina denbora. Gauzak azaltzeko denborarik ez izatea da kazetariak gehien gorroto duena. Azalpen osoa ezin ematea: arazoa hau da, honek hau esaten du eta beste honek bestea, zergatiak hauek dira eta interesak eta motibazioak beste

hauek. Ahal den eta informazio osoena eman ondoren ikus-entzuleak daukan heziketaren arabera osatuko du bere iritzia. Hori litzateke ideala. Arazoa da, eta gure herri honetan ere halakoa da, zer gertatzen den jakiteko bost egunkari irakurri beharra izan ohi dugula. Ez digu egunkari bakar batek ikuspuntu guztien berri ematen. Hori da kazetarion akatsa, guk geuk zintzo eta gaizto rolak banatuz berriak osatzea. Aukeratzen ditugun hitzekin eta irudiekin egiten dugu hori. Baina gatazka bat dagoenean inoiz ez da edo zuria edo beltza, beti da grisa. Esate baterako, Estatu Batuetan BBC Mundorako lanean aritu nintzen, eta bertan esan ohi ziguten erreportaje batek gutxienez bi ikuspuntu behar zituela onargarria izateko. Ez bazituen, ez zuen inolako baliorik. Hor dugu guk lana, informazio eta ikuspuntuen berri ematean eta zirikatzean, galderak egitean. Hala lortuko dugu jendeak zergatiaz galdetzea.

Etxera itzuli, Miramonen lan egin...

Ez, oraingoz ez. Urtetik urtera bizi naiz. Oraingoz hurrengo urterako plan bera dagoela dirudi. Europara hurbilduta familia eta lagunak hurbilago ditut, eta gainera, hemendik kanpo bizitzen ohitu naiz. Nik nire familia egin dut. Kanpora bakarrik joan nintzen eta orain lau gara etxean. Hala ere, kon-tuan hartu beharra dago hona etorri eta egin dituzten bide berri guztiekin 10 minututan Miramonen bertan egoteko aukera edukiko nukeela!

Urteak kanpoan pasa arren, baduzu Astigarragan txoko preziazurik?

Bai, Gaztañaga baserria, nire gurasoen etxea. Nere etxea. Dudarik gabe. ■

■ I. GOIZUTRAIL MENDI LASTERKETA DANI NARBARTE

«Eguraldi polita egiten badu, lasterketa berezia izanen da; besteetatik desberdina»

Goizutrail mendi lasterketa izanen da maiatzaren 17an, aurreneko aldiz. Maratoi erdia izanen da, 21,5 km-koa. Mandoegi igo eta jaitsi beharko dute partehartzaileek. Dani Narbarte antolatzaileetako bat da eta lasterketaren inguruko azalpenak eman dizkio Kronikari. Izen ematea zabalik dago.

MENDIAN korrika ibiltzea erokeria zen askorentzat orain dela urte batzuk, baina azken aldian mendi lasterketek sekulako arrakasta lortu dute. Herri guztietan antolatzen ari dira eta gero eta gehiago dira parte hartzen dutenak. Goizuetan ere aspaldian zebiltzan antolatu nahian eta azkenean, aurten egingen da aurreneko aldiz. Hiru larunbat barru izanen da, maiatzaren 17an. Goizutrail maratoi erdia (21,5 km) izanen da, Mandoegi tontorra igo eta jaitziz.

Dani Narbarte da antolatzaileetako bat eta halaxe kontatu dio Kronikari: «Pendiente zegoen gauza bat zen. Udaletik hasi ziren mendi lasterketa bat antolatu nahian eta mendi lasterketetan ibiltzen garen 4-5 herritar ere beti genbiltzan halako zerbait egin nahian. Hori horrela, martxan jartzea pentsatu genuen. Ikusi zen modu horretan ere herriari bultzada bat emanen zitzaiola, jendea herrira ekartzeko balioko zuela. Lehen erokeria zen mendi lasterketa bat egitea eta orain erokeria da ez egitea», dio. 6-7 lagun dabilta antolatzen: Udalekoak, Umore Onakoak eta 2-3 herritar.

Maratoi erdia izanen zela, argi

Lasterketako ibilbidea zehaztea nahiko erraz lortu zutela azaldu du Narbarte, beste kontuekin omen dago lana: «Lan haundia da: kontaktuak



Dani Narbarte da Goizutrail mendi lasterketaren antolatzaileetako bat.

egitea, opariak lortzea, laguntzaileak lotzea... Egunean bertan, laguntza asko beharko da. 40-50 bat lagun beharko dira eta herritarrentzat esfortzua izanen da. Hala ere, horrelako ekimenetan herria beti inplikatu izan da, beti egon izan da lanerako prest eta ez dela arazorik izanen iruditzen zait».

Ibilbideari dagokionez, hala azaldu du: «Nahiko erraz erabaki genuen; hasieran espero baino errazago, aukera pila proposatu baitziren. Hasieratik argi genuena zen, maratoi erdia izanen zela, mendi lasterketetan dabilen jendea erakartzeko. Tontorra erabakitzeko ere, ez zen zaila, Mandoegi eta Loitzate baitira gure bi mendi haundiak. Biak sartzea ere pentsatu genuen, baina oso lasterketa luzea ateratzen zen. Azkenean, bi aukerak probatu eta praktikoena hartu genuen».

«Oso oso ibilbide polita da»

Desnibel gogorreko ibilbidea izanen da, 1.500 metrokoa, hain zuzen. «Desnibel dexente dago, baina lasterketa bera, adibidez, ez da Urnietakoa bezain gogorra. Hemen, Mandoegi izanen da egin beharreko

«Zona teknikoak badaude, batez ere, Mandoegi inguruan. Bestela, nahiko ibilbide goxoa da. Eta seguru, jendea mendi sentsazioarekin geratuko da»

tontor bakarra, Urnietan tontor bat baino gehiago igo eta jaitsi behar dira, gorabehera asko ditu, eta gorputzarentzat ez da agian, hain naturala. Normalean ohituta gaude mendi bat igo eta gero jaistera», azaldu du Narbarte.

Zona teknikoak ere badaudela gaineratu du, batez ere, Mandoegi inguruan. «Bestela nahiko ibilbide goxoa da eta zati txikiren bat kenduta, dena mendia da. Hasierako 200 bat metro eta baserri tarteko 100 metro inguru dira asfalto edo hormigoia. Alde horretatik, seguru, jendea mendi sentsazioarekin geratuko da». Eta benetan ibilbide ederra dela azpimarratu du: «Oso oso ibil-

bide polita da. Gipuzkoara begira jaisten zara tontorretik eta itsasoa, Aiako Harriak, Larrun... dauzkazu bistan. Eguraldi polita egiten badu, lasterketa berezia izanen da; besteetatik desberdina».

Zegama-Aizkorri tokatu ez zaien esperoan

Zegama-Aizkorri, Euskal Herriko mendi lasterketarik ezagunenaren bezperatan izanen da Goizuetakoa, astebete lehenago. Ondorioz, zenbait korrikalarik ez dutela parte hartuko badaki Narbarte, baina espero du Aizkorrikoa tokatu ez zaien animatzea: «Jende pila apuntatzen da Zegama-Aizkorri egiteko eta gehienak aukerarik gabe geratu dira. Horiak etortzea espero dut».

Beraz, mendi lasterketetan punta-puntan dabilzan Jokin Lizeaga eta Uxue Fraile ez dira bertan izanen, besteak beste, baina harremanetan egon dira eta lasterketari bultzadatzeko bat emateko prest azaldu omen dira. Asmoen artean dago entrenamendu moduko bat antolatzeko beraiekin, irekia, ibilbidea erakutsiz eta jendea erakarritz.

Eskaintza berezia, Zubimuxu aterpean

Lasterketan 150 pertsonen hartu dezakete parte gehienez. Atzora arte, 52 lagunek emana zuten izena. Pixkanaka ari da jendea animatzen. Horren aurrean, halaxe dio Narbarte: «Gustatuko litzazuke dena betetzea, baina helburua ez da lasterketan jende pila ateratzea. Jendea etortzea nahi dugu: parte hartzera, animatzera, ikustera, eguna pasatzera... Azkenean helburua da, jendea herrira etortzea».

Herrian ere sortu omen du saltsa pixka bat. «Berez, 4-5 ibiltzen gara mendi lasterketetan eta dozena bat badira izena ematekoak. Pikea badago, bai», dio.

Eskaintza berezi bat ere badago kanpotik datorren jendearentzat, Zubimuxu aterpean. 50 euroan dago, bezperako afaria, lo egitea, gosaria eta izen ematea.

Mandoegi tontorretik ikusteko, primeran

Karrera ikusteko lekuri onenak zeintzuk diren galdetuta, bi gune aipatu ditu Narbarte:

«Errekalkon eta Mandoegi tontorrean izanen da polita ikusteko. Mandoegin gainera, bi bailarak ikusteko aukera dago, hau da, batetik nola igotzen diren eta bestetik nola jaisten diren». Aurrenekoak 2 ordu, 2 ordu azpitik egingen duela kalkulatzeko du Narbarte. «Eta punta-puntakoren bat etorriko balitz, ordu 1 eta 40 inguruan».

Parrandarako ere, aukera

Goizuetako plazan hasi eta bukatuko da lasterketa eta helmugan, hamaiketako ere jarriko dute, sagardo eta guzti. Irekia izango da. Horrez gain, Kintoen eguna izanen da eta parranda egin nahi dutenentzat ere giro ederra egonen dela dio Narbarte: «Egun pasa eder-rra egiteko aproposa izanen da. Mendi lasterketa ikusi eta ondoren parranda pixka bat». ■

INFORMAZIOA

Eguna eta ordua

Maiatzaren 17a, 09:00etan. Irteera eta helmuga Goizuetako plazan.

Izen ematea

- 20 euro inskripzioa interneten.
- 25 euro eguneko inskripzioa.
- 15 euro Goizuetakoak.
- 50 euro eskaintza berezia

Zubimuxun:

Afaria+gaua+gosaria+inskripzioa. Lekua hartzeko: 687 288 680.

Dortsalak

Bezperan, 18:00-20:00 eta egunean, 08:00etatik aurrera, Umore Ona elkartean. Arropa jasotzeko zerbitzua egongo da plazan bertan.

Dutxak: Eskolan.

Kategoriak

Helduak: 18 urtetik aurrera. Beteranoak: 45 urtetik aurrera.

Sariak

- Helduen kategoriko gizon nahiz emakumeentzat: 1.- Txapela + 150 euro. 2.- 100 euro. 3.- 50 euro.
- Beteranoen lehenengo emakume nahiz gizonezkoentzat: Goizuetako produktuak osatutako saski eder bat.
- Goizuetako lehenengo emakume eta gizonezkoentzat: 100 euro.
- Partehartzaile guztiek opari poltsa bat izanen dute eta gainera antolakuntzak lortzen dituen beste hainbat produktu ere zozketatuko dira parte hartzaile guztien artean.

Izena emateko eta informazio gehiagorako: www.kirolprobak.com

GOIZUETA - TXINO AUZOKO FESTAK

Bertso saioa eta musa, ostiralean, egun osoko festaren aurretik

Soto eta Legarreta ariko dira bertsoan. Larunbateko bazkariko txartelak salgai daude.

OHITURARI segituz, maiatzeko lehenbiziko asteburuan, zubiz bestaldera dagoen Txino auzoko festak izanen dira Goizuetan. Ostiral iluntzean hasiko dira bertso saio eta Mus Txapelketarekin. Larunbatean, berriz, egun osoko festa izanen da: Umore Ona dantza taldearen emanaldia, txupinazoa, dragoia, Oka jolas erraldoia, herri bazkaria... Bazkariko txartelak salgai daude Amaia kafetegian. **II**

EGITARAUA	eta dragoia.
Maiatzak 2, ostirala	Ondoren , Oka erraldoia (herria vs. Txino auzoa).
20:00 Bertso saioa Zubi-Ondo tabernan: Julio Soto eta Xabier Legarreta.	14:30 Bazkaria (txartelak, Amaian. Langileek 18 €, langabetuek 15 €).
22:30 Mus Txapelketa Zubi-Ondo tabernan. 1go saria, arkumea; eta 2garrena, txuleta eta txakolina.	18:00 Ikatzolako Edurneren Bakarritzeta.
Maiatzak 3, larunbata	Ondoren , trikitilariak.
11:30 Dantzariak.	00:00 Kontzertuak bajeran: Kalera + El Adhesivo.
12:00 Txupinazoa trikitilariekin	

ARANO - MIAXIRIA ALDIZKARIA

Hasi dira lanak jasotzen, aurtengo Miaxiria osatzeko asmoz

Abenduan argitaratuko da Miaxiria aldizkaria. Normalean idatzi ohi dutenekin jarri dira harremanetan, baina baten batek aportazioren bat egin nahi izanez gero, aukera dago.

BI urtez behin, Miaxiria aldizkaria argitaratu ohi dute Aranon eta aurtén, hirugarren alea argitaratzea tokatzen da. Abenduan argitaratuko litzateke eta arduradunek jakinarazi dutenez, dagoeneko hasi dira lanak jasotzen. Noiznahi entregatu litezke. **Aportazioak jasotzeko, irekia** Azaldu dutenez, jarri dira

harremanetan orain arteko Miaxirietan idatzi dutenekin eta aldizkaria osatzen lagundu dutenekin, baina norbaitek aportazioren bat egin nahiko balu, aukera dago: gai bat pro-

posatu, artikuluren bat idatzi, erreportajeak, argazkiak pasa... Interesa dutenei harremanetan jartzeko dei egiten diete. Udaletxera jo beharko lukete horretarako. **II**



ARANO

Hiru mahai jarri ditu Udalak, jendearentzat

Erabilera publikorako hiru mahai jarri ditu Udalak Aranon. Taberna eta soziedadearen tartean dauden eskailerak jaitzita iristen da bertara. Ingurua txukundu dute eta bista zoragarriez goatzeko aukera dago Ipiñabar eta Enazi aldera, hau da, Gipuzkoa aldera. Aurreko astean jarri zituzten Aste Santuari begira, eta jendea ibili dela azaldu dute. **II**

ARANO

Plenoa izanen da asteazkenean

Osteguna jai denez, asteazkenean egingen dute Plenoa Aranon. Gai bakarra izanen dute: Europar parlamentuko hauteskundeak direla eta, mahaian egotea zeini tokatzen zaion zozketatuko dute. **II**

Udaletxea zabalik, asteazkenean

Heldu den osteguna jaieguna izaki, asteazken arratsaldean irekiko dute udaletxea. **II**

GOIZUETA

Jon Apezetxeak Eibarren jokatu du igandean

Mendizabal IIIaren aurka jokatu du igandean Jon Apezetxea pilotari goizuetarrak. Eibarreko jaialdian izanen da 17:00etatik aurrera. **II**

GOIZUETA

Zubiri, beste garaipen baten bila

Erremonte jaialdia izanen da gaur ere eta Aritz Zubirik Matxin Vlerekin jokatu du. Juanenea eta Aizpuru IIIa izanen dituzte aurrez aurre. 16:00etan hasiko da jaialdia. Bestalde, goizuetarrak 30-21 irabazi zien Etxabe II-Saldiasi. Urtasuneki jokatu zuen. **II**

GOIZUETA

Herri krozean izen ematea, zabalik

Goizuetako kros herrikoia antolatu dute, hirugarren urtez. Maiatzaren 25ean izanen da eta izen ematea zabalik dago *kirolprobak.com* helbidean (10 euro; goizuetarrek 8 euro). 9km-ko lasterketa izanen da: erdia asfaltotik eta beste erdia gurdi bidetik. **II**

GOIZUETA

BTT zeharkaldia, ekainean

Iskibi kanpinak BTT zeharkaldia antolatu du aurtén ere, bosgarren aldiz. Ekainaren 1ean izanen da. Izen ematea irekita dago *kirolprobak.com* helbidean (12 euro). Egunean bertan ere izanen da aukera. Bi zirkuitu egonen dira aukeran: luzeak 50 kilometro izanen ditu eta motzak beriz, 34km. **II**

URUBIA ARANON

Kabitik erori zen hontza kumea, aurreko astean

Aranoko elizan, kanpandorrean, kabiak egin ohi dituzte urubiek (*strix aluco*). Hontzaren tankerako hegazti harrapariak dira. Kume bat erori egin zen kabitik apirilaren 15ean eta elizaren baztar batean aurkitu zuten. Herritar ugari gerturatu zen ikusi eta argazkiak ateratzera. Ondoren, amarengana, kabira bueltatu zuten. **II**



Argitaratzailea: Dobra Euskara Elkartea. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: A. Arbelaiz, E. Zeberio, E. Agirre, K. Gamendia, L. Goñi, M. Ramirez de Alda eta A. Moreno. Egoitza: Larramendi 11(Hernani), Santio Zeharra 8, Kirolegia (Astigarraga).
☎ 943 33 08 99 (Hernani) eta 688 660 714 (Astigarraga). Eposta: kronika@kronika.net, astigarraga@kronika.net, urumea@kronika.net eta publi@kronika.net. Lege gordailua: SS-400/2014 ISSN: 2341-2976

☎ TELEFONAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK • Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

GAUR Fronte hotz batek lurraldea zeharkatuko du. Zeruan lainoak izango dira nagusi eta euria egingo du. Ipar ikutuko haizea ibiliko da eguerditik aurrera. Min.11° / Max.18°.

BIHAR Ostarteak eta lainoak; tarteka zaparradak eta ekaizak leher-tuko dira. Ipar-mendebaldeko haizeak joko du, zakar. Min.8° / Max.16°.

(euskalmet)



ZIRABA PROIEKTUA

Ibilaldia, azalpen eta guzti,
Epele eta Intsusadiko putzuetara

Ion Garin eta Iñaki Sanz-Azkue Aranzadiko kideek azalpenak emango dituzte anfibio eta narrastiei buruz. Maiatzaren 10ean.

DATORREN maiatzaren 10ean ibilaldi praktikoa izango da Epeleko Zapadiko putzura eta eta Itsusadiko putzura. Anfibio eta narrastiak ezagutu nahi dituenak, aukera izango du goiz pasa eginez bi adituren azalpenak entzuteko. Ion Garin eta Iñaki Sanz-Azkue Aranzadiko kideek emango dituzte azalpenak.

Goizeko 09:00etan egin dute zita, Ereñotzuko frontoian, eta bertatik mugituko dira. Bakoitzak bere hamaiketako eraman behar du.

Ibilaldi hau Ziraba proiektuaren barruan dihoa, eta era berean, Donostiako Ura, ibaiak eta herriak erakusketaren inguruan egin duten egitarauaren barruan ere badago.

Epeleko putzu berria,
bizi bizirik

Epeleko Zepadiko hiru putzu-



Txirritako ikasleek bukatu dute anfibio eta narrastiei buruzko unitate didaktikoa.

ak bizi bizirik daude. Joan den azaroaren 19an egin zituzten auzo lanean, eta geroztik landaretza hazi da eta bizidun asko inguratu dira: *ingela gorriya* izan zen lehenengoa, eta geroztik inguratu dira *lauhankekuak*, *arrobiyuak*, *zapuak*... Zaindari txikiak ere izan

ditu, Txirrita ikastetxeko ikasleak, ikerlari lanak egin dituztenak aurtengo ikasturtean. Joan den astean egin zuten azken irteera putzura, eta Ion Garinen laguntzarekin azken ondorioak atera zituzten, aurre euren lagun egin dituzten putzuko bizilagunei buruz. II

ZINEA

'8 apellidos vascos'
pelikularen
zazpi saio,
astelehenera arte

Berriro ari dira ematen, Biterin, *8 apellidos vascos* pelikula arrakastatsua, asteburuan. Atzo eman zuten lehen saioa, eta beste zazpi izango dira, astelehenera bitartean. Gaur, hiru aldiz ikusi ahalko da: 17:00etan, 19:30etan eta 22:30etan. Bihar, berriz, beste hiru sesio: 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan. Astelehenean botako dute azken aldiz, 16:30etan. Sarrerak 4 euroan daude gaur eta biharko saioetarako; 2,5 euroan astelehenerako. II



IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko Kale Nagusian, 60m2, kalefakzioa eta altzariak barne. Eraikin berria eta igogailuarekin. Aukera bikaina: 195.000€. Deitu: 659 41 61 40.

Pixu apaina salgai. Zona lasaia. Terraza haundia, 2 gela, trastelekua eta eraberritua. Deitu: 655 719 660

Emakume arduratsua eta esperientziarekin pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Gomendioekin. Deitu: 629 220 911

Garaje itxia salgai, Garcia Golderaz 8an. Deitu: 675 718 243

Apartamentua ALOKAGAI, 45 m2 eta 30 m2ko terraza, amueblatua eta kanpoaldera. Deitu: 699 492 235

Hernanin etxea salgai, Karabelen, 2 logela, dena berritua, kanporaldera. Bizitzera sartzeko prest. Deitu: 630 237 924

Kotxea salgai. Kia Ceed Sportwagon. 43.000 km, 115 CV. Beltza kolorekoa. Llantak, klimatizado-rea, kruzero abiadura, remolkerako bola... 7 urte etxeko garantia. 10.500 €. Deitu: 649 20 90 58

ARIK Terapia Zentroa. Udalekuak inglesa-euskara Aste Santuan, ikastolara eman-ekarri zerbitzua, adimen emozionala, yoga, psikomotrizitatea, masaia... Deitu: 943506672

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

OVIEDO SENIOR eskaintza Ekainera arte 6 gau 4* Hotelean, pentzio osoan + edariak + spa	388 ¹⁰⁰ €	CROACIA-ESLOVENIA Uztailaren 8an Bilbotik hegaldia + 7 gau 3 eta 4* Hotelean, gosaria barne + bilbotik ZAGREB, LUB, LANA-OTU, LISA, PLITVICE, RAVAN	1230 ¹⁰⁰ €
LANZAROTE Maiatzaren Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean, pentzio ordian	411 ¹⁰⁰ €	POLONIA Uztailaren 7 eta 28an Bilbotik hegaldia + 7 gau 3 eta 4* Hotelean, gosaria barne + bilbotik VARSOVA, GDYNIA, POZNAN, CRACOVIA	1245 ¹⁰⁰ €
LA HABANA Maiatzaren 4 eta 11n Medikik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean, gosaria barne	750 ¹⁰⁰ €	PARIS-PAISES BAJOS-CRUCERO RHIN Uztailaren 8 eta 28an Bilbotik hegaldia + 7 gau 3 eta 4* Hotelean, pentzio osoan + bilbotik FRANKURT-AMST, PRAGA, BUDAPEST, LUXEMBURG	1290 ¹⁰⁰ €
KRUZEROA MEDITERRANEOAN Maiatzaren 10, 17 eta 24an Bilbotik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean, gosaria barne + bilbotik NAPLES, ROMA, FLORENTIA, VENEZIA, CARLO	648 ¹⁰⁰ €	PRAGA-VIENA-BUDAPEST Abuztuaren 24an Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean, gosaria barne + bilbotik	975 ¹⁰⁰ €
RUTA DEL AMBAR Maiatzaren 12 eta 19an Bilbotik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean, gosaria barne + bilbotik NAPLES, ROMA, FLORENTIA, VENEZIA, CARLO	995 ¹⁰⁰ €	 Aukera gehiago www.bidaibila.com  HERNANI BIDAIAK Udala: 9 943 33 00 49 www.hernanibidaiak.com	
CABO VERDE Maiatzetik Ekainaren 14ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean, gosaria barne	829 ¹⁰⁰ €		
MAJORCA Ekainaren 13tik 20ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean, pentzio ordian	480 ¹⁰⁰ €		
FUERTEVENTURA Maiatzaren 27tik Ekainaren 3an Bilbotik hegaldia + 7 gau 2* apartamentuan pentzio ordian	320 ¹⁰⁰ €		